



Arartekoaren 2024IR-2161-20 Ebazpena, 2024ko martxoaren 25ekoa. Honen bidez, amaitutzat ematen da pedagogiako espezializazio-programa bat garatu ez izanari buruzko kexan izan duen esku-hartzea.

Aurrekariak

1. Pertsona batek (...) kexa bat aurkeztu zuen Arartekoan, musika-ikasketak irakasteko eskatu ziren betekizunei buruz.

Haren esanetan, titulu hauek ditu: Lehen Hezkuntzako graduaren titulua — musikaren alorrean—, gitarra musika-tresnaren titulu profesionala, urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoan¹ arautua, eta 1. mailako irakaslearen eta gitarra elektrikoa irakasteko gaikuntzak.

Hala ere, titulu horiek ez zioten aukerarik ematen kontserbatorioetan lan egiteko, ezta musika-eskoletako edozein mailetan irakasteko ere. Horrenbestez, adierazi duenez, Hezkuntza Saileko instantzietan ibili da galdetzen zer aukera duen aipatu lanbideetan aritzeko. Orain arte ez du erantzun erabakigarririk jaso.

Bilera batzuen ostean, idazki bat aurkeztu zuen administrazioko erregistro ofizialean. Idazkiaren bidez bere egoera azaldu zuen eta gitarra klasikoko I., II. eta III. mailetako gaikuntza emateko eskatu zuen, zenbait gogoeta kontuan hartuta betiere.

Besteak beste, azaldu zuen berearen antzeko musika-titulua duten pertsonak (irailaren 10eko 2618/1966 Dekretuaren bidez onartutako Ikasketa Planeko Irakasle titulua) irakasle gisa jardun dezaketela berak sarbiderik ez duen zentroetan eta mailetan.

Euskal Autonomia Erkidegoko musika-eskolak arautzen dituen araudia ere aipatu zuen (urriaren 27ko 289/1992 Dekretua²). Izan ere, dekretu horren arabera, pedagogia orokorreko eta espezializatuko prestakuntza-ziklo bat eginez gero, berea bezalako titulua daukaten pertsonak kexagileak eskatu dituen mailetan eskolak emateko gaikuntza izango lukete.

¹ Hezkuntza Sistemaren Antolaketa Orokorrari buruzko urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoa.

² 289/1992 Dekretua, urriaren 27koa, Euskal Autonomia Elkartearen «Musika-Eskola» direlako arautu gabeko berariazko musika-irakaskuntzarako ikastetxeak sortu eta jardunean jartzeko balio izango duten oinarrizko arauak ezartzen dituena.

Bestalde, kexagileak proposatu zuen Lehen Hezkuntzako Graduak (berak daukana) aipatu araudian sortutako programaren xede den espezializazio pedagogikoa ordezkatu ahal izatea, Hezkuntzari buruzko 2/2006 Lege Organikoak³ zortzigarren xedapen iragankorrean ezartzen duenaren antzeko bidea jarraituz: xedapen iragankor horrek legeak arautzen dituen irakaskuntzetan irakasle izateko eskatzen den prestakuntza pedagogiko eta didaktikoaren eskakizunaz salbuesten baititu maisu-maistren titulua duten pertsonak.

Ararteko erakundeak egiaztatu du 289/1992 Dekretuan (zazpigarren xedapen iragankorrean) kexagileak egindako proposamenaren aldekoa izan daitekeen aukera bat jasotzen dela. Honako hau ezartzen da bertan:

“Hezkuntz-Sistema Antolatzeari buruzko urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoan oharte-mandako lanbiderako tituluek Musika-eskoletako 1., 2. eta 3. mailetako irakaskuntza emateko gaitasuna eskaintzen dute, aurrez pedagogia orokor eta berezituko prestakuntza aldi bat igaro eta gero. Prestakuntza aldiko pedagogia berezituko alorrak berariazkoa izan behar du 1. mailarako edo 2. eta 3. mailetarako, pedagogia orokorreko alorra bietarako berdina delarik.”(sic)

Aurreikuspen hori oinarritzat hartuta, irailaren 20ko 250/2005 Dekretuak⁴ sortu zituen Espezializazio Profesionaleko Programak eta, zehazki, pedagogia orokor eta espezializatuko programa, irakasleak musika-eskoletarako gaitzeko aurreikusitena. Zehazki, 14.2 artikuluan honako hau xedatzen zuen:

“Ildo horretatik, «Pedagogia orokor eta espezializatua» izeneko lanbide-espezializazioko programa sortu da. Urriaren 27ko 289/1992 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoan «Musika Eskola» direlako arautu gabeko berariazko musika-irakaskuntzarako ikastetxeak sortu eta jardunean jartzeko balio izango duten oinarrizko arauak ezarri dituenak, bere 7. xedapen iragankorrean dioenaren arabera, prestakuntza horrek musika-eskoletako 1., 2. eta 3. mailetako irakaskuntza emateko gaitasuna eskainiko du. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ezarriko ditu programa horren curriculum eta ezaugarriak, eta dagozkion ziurtagiriak emango dizkie horretarako ikasketak gainditzen dituztenei, bertan adieraziz zer mailarako gaitasuna ematen duen.”

Arau hori beranduago ordeztu zuen abenduaren 11ko 229/2007 Dekretuak⁵. Horren 12.2 artikuluan, testu berdin-berdina jasotzen da espezializazio-programari dagokionez.

³ 2/2006 Lege Organikoa, maiatzaren 3koa, Hezkuntzari buruzkoa.

⁴ 250/2005 Dekretua, irailaren 20koa, musika-ikasketen oinarrizko maila eta maila ertainaren curriculum eta maila horietara nola iritsi ezarri dituena.

⁵ 229/2007 Dekretua, abenduaren 11koa. Honen bidez ezartzen da musika-ikasketa profesionalen curriculum eta ikasketa horietan sartzeko probak.

Kexa aztertzen ari zela, 2008. urtean Musiker aldizkarian argitaratu zen artikulu baten⁶ berri izan zuen erakunde honek. Garai hartan Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Irakaskuntza Espezializatuen Zerbitzuko arduradunak argitaratu zuen artikulua, eta bertan, Espezializazio Pedagogikoko Programaren harira egindako zirriborro batzuk aipatzen zituen, EAEko musika-eskoletan I. II. eta III. mailetan eskolak ematea gautzeko aukera moduan.

Azkenean Hezkuntza Sailak ez zuen programa garatu eta, ondorioz, musikako titulu profesionala zuten pertsonak musika-eskoletan eskolak emateko aukera bertan behera geratu zen.

2. Arartekoak Hezkuntza Sailari laguntza eskatu zion. Sailaren iritzi arrazoitua nahi zuen kexan azaltzen diren inguruabarren gainean, eta Sailak gai horren gainean eta kexagileak eskatutakoaren gainean esku hartuko zuen jakin nahi zuen.
3. Hezkuntza Sailak txosten bat bidali zuen erantzun moduan. Txostenean jaso zituen, batetik, gai hori arautzen duten arauak eta, bestetik, Euskal Autonomia Erkidegoko musika-eskoletan eskolak emateko eskatzen diren tituluak.

Jarraian, Sailak baieztatzen zuen hezkuntza-administrazio horrek ez duela gauzatu irailaren 20ko 250/2005 Dekretuan eta gero abenduaren 11ko 229/2007 Dekretuan jasotako garapen-aurreikuspena, urriaren 27ko 289/1992 Dekretuan aipaturiko titulu profesionalak zituzten pertsonak musika-eskoletan 1., 2. eta 3. mailetan eskolak ematera sartzeko bide gisa arautzen zen pedagogia orokorreko eta espezializatuko programa sortzean.

Horri lotuta azaldu zuen Hezkuntza Sailak heldu beharreko gai bat dela, aldeztatik Euskadiko Musika Irakaskuntzen Aholku Batzordeari kontsulta eginda. Dirudienez, Batzordeak aztertu zuen gaia, eta orain erabakia falta zen.

Azkenik azaldu zuen Jaurlaritzak goi-mailako arte ikasketak arautzeko asmoa zuela, abenduaren 29ko 3/2020 Lege Organikoaren⁷ bederatzigarren xedapen osagarrian ezarritakoa betetzeko, eta hori izango zela urriaren 27ko 289/1992 Dekretua berritzeko eta gai horiek berriz arautzeko abiapuntua.

⁶ Sanz, P. (2008). El grado medio de música: situación y líneas de trabajo en la Comunidad Autónoma del País Vasco (2003-2007). *Musiker* (16), 385-396. Hemendik hartuta: [El grado medio de música: situación y líneas de trabajo en la Comunidad Autónoma del País Vasco \(2003-2007\) | Eusko Ikaskuntza \(eusko-ikaskuntza.eus\)](#)

⁷ 3/2020 Lege Organikoa, abenduaren 29koa, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa aldatzen duena.

4. Azaldutakoa kontuan hartuta, Arartekoak erabaki zuen berriz eskatu behar ziola laguntza Hezkuntza Sailari, hasierako eskaerari lotutako alderdi batzuk zehaztu nahi zituelako, gero espedientean aztertzen zen gaiari prozedura egokia eman ahal izateko.

Kexan azaltzen zen jardunbideari buruz galdetu zitzaion lehenbizi, hau da, aipatu dekretuen bidez sortu zen programak xedetzat zuen espezializazio pedagogikoa ordezkatu zitekeen beste titulu akademiko batzuen bidez (Lehen Hezkuntzako Graduaren bidez, esaterako), maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan jasotzen diren irakaskuntzak emateko aurreikusitakoaren arabera.

Oro har, lege organiko horren 100.2 artikuluekin bat etorritik, irakaskuntzan jardun ahal izateko prestakuntza pedagogikoa eta didaktikoa egiaztatu behar da:

“Para ejercer la docencia en las diferentes enseñanzas reguladas en la presente Ley, será necesario estar en posesión de las titulaciones académicas correspondientes y tener la formación pedagógica y didáctica que el Gobierno establezca para cada enseñanza.”

Alabaina, arau horretako zortzigarren xedapen iragankorrek titulu jakin batzuk dituzten pertsonak salbuesten ditu prestakuntza pedagogiko eta didaktiko hori frogatzeko betebeharretik. Zehazki, honako hau ezartzen du⁸:

“Los títulos Profesionales de Especialización Didáctica y el Certificado de Cualificación Pedagógica que a la entrada en vigor de esta Ley hubieran organizado las universidades al amparo de lo establecido en la Ley Orgánica 1/1990, de 3 de octubre, de Ordenación General del Sistema Educativo, el Certificado de Aptitud Pedagógica y otras certificaciones que el Gobierno pueda establecer serán equivalentes a la formación establecida en el artículo 100.2 de esta Ley, hasta tanto se regule para cada enseñanza. Estarán exceptuados de la exigencia de este título los maestros y los licenciados en pedagogía y psicopedagogía y quienes estén en posesión de licenciatura o titulación equivalente que incluya formación pedagógica y didáctica.”

Erakunde honen ustez, arau honek dagoeneko titulazio akademiko bat duten pertsonen espezializazio pedagogikoko titulu osagarri bat izateko betebeharretik salbuestea (ulertzen baita jaso dutela prestakuntza hori) aurrekari garrantzitsua da kexa hau eragin duen gaiari dagokionez. Izan ere, musika-eskoletan eskolak ematea ahalbidetuko luken programa espezifikoa bat sortzearen xedea espezializazio pedagogikoa eskuratzea zen eta espezializazio hori eskuratutzat jo zitekeen arestian aipaturiko xedapenean aurreikusitako titulazio akademikoak dutenen kasuan: irakasleak, pedagogian eta psikopedagogian lizentziadunak eta prestakuntza pedagogikoa eta didaktikoa barne hartzen duen antzeko lizentziatura edo titulazioa duten pertsonak.

⁸ Guk azpimarratu dugu.



Horri lotuta, eta jarduera-eremu berean, Arartekoak Hezkuntzako sailburuordearen 2021eko apirilaren 29ko jarraibideak⁹ aztertu zituen (musika-eskoletan irakasle berezi moduan gaitzeari buruzkoak). Jarraibideek, gainera, 1. mailarako gaikuntza berezia ematen zien pedagogiari lotuta dagoen diplomatura, lizentzia edo unibertsitate-graduren bat egin duten pertsoneri, gai horretako espezializazio-ikastaro jakin bat egiaztatu beharra eskatu gabe.

Bestalde, Jaurlaritzak abenduaren 29ko 3/2020 Lege Organikoaren bederatzigarren xedapen gehigarrian ezarritakoa betetzeko asmoz araudia prestatzeko asmoa duela azaldu da, eta horri dagokionez Arartekoak ikusi du goi-mailako arte ikasketei buruzkoa izango dela araudi hori.

Arartekoak adierazi zuen musika-eskolen araubidea ez dela zehazten goi-mailako irakaskuntza artistikoen arauketaren bidez; aitzitik, beren-beregi garatu dute hezkuntza-administrazioek, beren eskumenak baliatuz eta beren hezkuntza-sistemako berezko ezaugarriak kontuan hartuta.

Hala ondorioztatzen da urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoaren 39.5 artikulutik eta hori ordezkatu zuen maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 48.3 artikulutik; horien arabera,

“Con independencia de lo establecido en los apartados anteriores, podrán cursarse en escuelas específicas, sin limitación de edad, estudios de música o de danza, que en ningún caso podrán conducir a la obtención de títulos con validez académica y profesional y cuya organización y estructura serán diferentes a las establecidas en dichos apartados. Estas escuelas se regularán reglamentariamente por las Administraciones educativas.”

“Con independencia de lo establecido en los apartados anteriores, podrán cursarse estudios de música o de danza que no conduzcan a la obtención de títulos con validez académica o profesional en escuelas específicas, con organización y estructura diferentes y sin limitación de edad. Estas escuelas serán reguladas por las Administraciones educativas.”

Ez dago, beraz, musika-eskolak egituratzeko eta funtzionatzeko edo ikastetxe horietan irakaskuntza garatzeko eska daitezkeen baldintzak arautzen dituen oinarritzko eta baterako araubiderik, beren lurralde-eremuan eskudunak diren hezkuntza-administrazioei beren-beregi esleitutako gaiak baitira.

⁹ Jarraibideak, Hezkuntzako sailburuordearenak, Euskal Autonomia Erkidegoko Musika Eskoletako irakasle berezi modura gaitzeko eskatzeko prozedura arautzeko, baldintzak finkatzeko eta baremoak ezartzeko.



Amaitzeko, kexagileak idatziz eta erregistro ofizial batean aurkeztu zuen eskaerari lotuta eskatu zitzaion laguntza Sailari, baina Hezkuntza Sailak erantzun moduan bidali zuen txostenean ez da azaltzen eskatutakoa ebatzi zen.

Arartekoak administrazioaren isiltasunari lotutako espedienteetan aurretik hartu zituen erabakiak azaltzen ziren idazkian, erakunde honek administrazio publikoei gogoratzeko zuzeneko interesdunen eskaerak ebatzeko betebeharra dutela, eta erantzun arrazoitua eman behar dutela, pertsona horiek benetan jakin dezaten administrazioak zer jarrera duen eztabaidatutako gaiaren inguruan eta zein argudio hartzen dituen jarrera horren oinarri moduan. Horrela eginez gero, interesdunek haien eskubide eta interes legitimoak defendatu ahal izango dituzte ordenamenduak eskaintzen dizkien berme formal eta material guztiekin.

Azaldutako guztia dela bide, erakunde honek Hezkuntza Sailari eskatu zion gai horiei guztiei buruz duen iritzi arrazoitua emateko, eta zehazki gai honi buruz: maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren zortzigarren xedapen iragankorrean aurreikusitako tituluak izatea nahikoa den musika-eskoletako 1., 2. eta 3. mailetan eskolak emateko eskatzen den gaitasun pedagogikoa aitortzeko eta, ondorioz, urriaren 27ko 289/1992 Dekretuan aurreikusitako pedagogiako programa espezifikoa egiteko baldintzatik salbuesteko.

Era berean, eskatu zion azaltzeko zein denbora-aurreikuspen dagoen programa hori garatzeko, eta, azkenik, galdetu zion ea kexagileari erantzunik emango zion ebazpen espresu eta arrazoitu baten bidez.

5. Hezkuntza Sailak txosten bat bidali zuen erantzun moduan. Bertan, laburtuz, honako hau adierazi zuen:

- Urriaren 27ko 289/1992 Dekretuak arautzen ditu musika-eskoletan eskolak emateko behar den titulu-eskakizunak, baina baita irakasle berezi gisa gaitzeko prozedura ere (2021eko apirilaren 29ko jarraibideen bidez garatutakoa).
- Jarraibideen arabera, soilik geratuko dira pedagogiako espezializazioaren ikastaroa edukitzetik salbuetsita 1. mailan gai horri lotutako diplomatura, lizentzia edo unibertsitate-graduren bat egin duten pertsonak. Egia da maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak prestakuntza pedagogikoa eta didaktikoa edukitzetik salbuesten duela, baina musika-eskoletako musika-ikasketen ezaugarriek ez dute horretarako aukerarik ematen.
- Urriaren 27ko 289/1992 Dekretuak sortu zuen pedagogiako programa espezifikoa (irailaren 20ko 250/2005 Dekretuak eta abenduaren 11ko 229/2007 Dekretuak aipatzen dutena) ez du garatu Hezkuntza Sailak; hau da,



programa hori ez dago martxan eta ez da aurreikusi abian jartzea. Asmoa da hasierako dekretua aldatzea eta sarbide-tituluak mugatzea, alde batera utziz ordura arte titulu profesional bat zuten pertsonen ematen zitzaizkien aukera.

- Dena den, abenduaren 29ko 3/2020 Lege Organikoan ezarritakoaren ondoriozko arautzea goi-mailako musika-ikasketen buruzkoa dela onartzen bada ere (eta ez musika-eskoletako ikasketen buruzkoa), garapen horrek ekarriko lituzkeen berrikuntzak musika-eskolen araudi berrian aplikatuko lirateke.
- Kexagilearen eskaerari idazki bidez erantzun ziztaion.

6. Arartekoak adostu zuen arrazoizko epealdi bat utziko zuela erantzuna jasotzeko, espedientearen esku-hartzearekin jarraitu aurretik. Epealdia igaro zenean, berriz eskatu zion laguntza Hezkuntza Sailari: urriaren 27ko 289/1992 Dekretua aldatu zen galdetu zion eta, aldatu bazen, haren edukiaren gaineko informazioa emateko eskatu zion.

Horrez gain, epealdi horretan zehar pedagogia orokorreko eta espezializatuko programa garatu zen galdetu zion.

7. Orduan, Hezkuntza Sailaren txostenean honako hauek azaldu ziren:

- Urriaren 27ko 289/1992 Dekretuak ezartzen du Musikako titulu profesionalak musika-eskoletako 1., 2. eta 3. mailatan irakasle izateko gaikuntza ematen duela, baldin eta aurretik pedagogiako prestakuntza-ziklo bat egin bada: pedagogia orokorrekoa (hiru mailentzat balio duena) eta pedagogia espezifikokoa (1. mailarentzat bakarrik balio duena edo 2. eta 3. mailentzat bakarrik balio duena).
- Abenduaren 11ko 229/2007 Dekretuak «pedagogia orokor eta espezifikoko» espezializazio profesionalaren programa sortu zuen.
- Aurretik azaldu bezala, urriaren 27ko 289/1992 Dekretua indarririk gabe utzi behar zen, eta haren ordezkari beste bat ezarri. Arau berria izapidetzen ari da, nahitaezko txosten batzuk falta direlako oraindik.
- Pedagogiako espezializazio profesionalaren programa ez da martxan jarri eta ez da jarriko, arau berrian kendu egingo delako titulu profesional batek hezkuntzan aritzeko aukera ematea.



Gogoetak

1. Espediente hau aztertu ostean ezin da zalantzan jarri, urriaren 27ko 289/1992 Dekretuaren arabera, musikako titulu profesionala duten pertsonen musikako eskoletako 1., 2. eta 3. mailatan jardun dezaketela irakasle gisa, baldin eta pedagogiako prestakuntza-ikastaroa gainditzen badute.

Horrela dago ezarrita oraindik indarrean dagoen dekretu horretako zazpigarren xedapen iragankorrean:

“Hezkuntz-Sistema Antolatzeari buruzko urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoan oharte-mandako lanbiderako tituluek Musika-eskoletako 1., 2. eta 3. mailetako irakaskuntza emateko gaitasuna eskaintzen dute, aurrez pedagogia orokor eta berezituko prestakuntza aldi bat igaro eta gero. Prestakuntza aldiko pedagogia berezituko alorrak berariazkoa izan behar du 1. mailarako edo 2. eta 3. mailetarako, pedagogia orokorreko alorra bietarako berdina delarik.”(sic)

Eta Hezkuntza Sailak ere horrela onartu du Arartekoak bidali zizkion informazio-eskaerei erantzuteko helarazi zituen txostenetan.

2. Agerikoa da, bestalde, irailaren 20ko 250/2005 Dekretuak espezializazio profesionaleko programak sortu zituela eta, bereziki, musika-eskoletan irakasle gisa jardun ahal izateko prestatu zen pedagogia orokor eta espezializatuko programa. Izan ere, 14.2 artikuluan honako hau ezartzen du¹⁰:

“Ildo horretatik, «Pedagogia orokor eta espezializatua» izeneko lanbide-espezializazioko programa sortu da. Urriaren 27ko 289/1992 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoan «Musika Eskola» direlako arautu gabeko berariazko musika-irakaskuntzarako ikastetxeak sortu eta jardunean jartzeko balio izango duten oinarrizko arauak ezarri dituenak, bere 7. xedapen iragankorrean dioenaren arabera, prestakuntza horrek musika-eskoletako 1., 2. eta 3. mailetako irakaskuntza emateko gaitasuna eskainiko du. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ezarriko ditu programa horren curriculum eta ezaugarriak, eta dagozkion ziurtagiriak emango dizkie horretarako ikasketak gainditzen dituztenei, bertan adieraziz zer mailarako gaitasuna ematen duen.”

3. Azaldutako guztiaren ondorioz erakunde honek egindako azterketak ondorioztatzen du, zalantzarik gabe, indarreko araudiak berak ematen ziela musika-eskoletan irakasle aritzeko aukera titulu profesionalak dituzten pertsonen. Halaber, zalantzarik gabe, araudi horrek sortu zuen zeregin horretan aritzeko programa. Azken batean, eztabaidaezina da araudi horrek agindu ziola Hezkuntza Sailari programaren curriculum eta ezaugarriak garatzeko, gero interesdunek egiteko eta haren gaikuntza onartua izateko moduan.

¹⁰ Ikusi abenduaren 11ko 229/2007 Dekretuaren 12.2 artikulua. Dekretu horren bidez aurreko araua ordezkatu zen, nahiz eta puntu horren edukia berdin-berdina izan.

4. Baina Hezkuntza Sailak ez zuen bete gutxienez 2005. urtetik ezarrita zegoen legezko manua.

Horri lotuta, pedagogiari, antolaketari edo bestelako arlo bati lotutako arrazoiak direla medio araudia aldatu behar bazen titulu profesionalak dituzten pertsonak irakaskuntzan ez jarduteko, Hezkuntza Sailak urte horiek guztiak izan ditu aldaketa hori egiteko; izan ere, urte horietan guztietan indarrean jarraitu dute bai 289/1992 Dekretuak, bai 250/2005 eta 229/2007 dekretuek, eta, ondorioz, indarrean jarraitu dute bai pertsona horien eskubideak baita administrazioak programa garatzeko zuen betebeharra ere.

Ematen du ez zela hori Hezkuntza Sailaren asmoa, Saileko Irakaskuntza Espezializatuen Zerbitzuko arduradunak 2008. urtean argitaratu baitzuen programa garatzeko prestaketa-lanak egiten ari zirela eta etorkizunera begira aplikatuko zen programa izango zela.

Hezkuntza Sailak erakunde honetara bidalitako lehenengo txostenean azaltzen zen, hain zuzen ere, sailak programa garatuko zuela baina Euskadiko Musika Irakaskuntzen Aholku Batzordeari kontsulta egin ostean, eta gaia aztertu bazuen ere Batzordeak ondorioen bat ematea falta zela.

5. Urteetan zehar gai horretan jardunik ez egitearen ondorioz, kexagilea bezalako pertsonak, hau da, musikako titulu profesionala duten pertsonak urte horietan guztietan egon dira musika-eskoletako 1., 2. eta 3. mailetan irakasle-lanetan jardun ezinik, nahiz eta haien eskubidea babesten zuen araudia egon.

Ondorioa

Hizpide darabilgun kexa aurreko gogoeten arabera aztertu ondoren, Hezkuntza Sailak bidali dituen ondoz ondoko idazkietan agertu duen jarrera kontuan harturik, eta une honetan kexa eragin duen auziaren inguruko konponbide egokirik lortzea ezinezkoa dela ikusita, Arartekoak erabaki du bere esku-hartzeari amaiera ematea espedientean, otsailaren 27ko 3/1985 Legearen babesean, eta honako ondorio hauek formulatzea:

1. Urriaren 27ko 289/1992 Dekretuaren arabera, musikako titulu profesionala duten pertsonak musika-eskoletako 1., 2. eta 3. mailetan jardun dezakete irakasle gisa, baldin eta pedagogiako prestakuntza-ikastaroa gainditzen badute.



2. Irailaren 20ko 250/2005 Dekretuak musika-eskoletako irakasleak gaitzeko pedagogia-programa sortu zuen, eta Hezkuntza Sailari agindu zion programa horren curriculum eta ezaugarriak garatzeko.
3. Urte hauetan guztietan Hezkuntza Sailak ez du agindutako hori bete, eta ez du programa garatu.
4. Horrenbestez, musikako titulu profesionala zuten pertsonak ezin izan dute irakasle gisa jardun musika-eskoletako 1., 2. eta 3. mailetan, nahiz eta haien eskubidea babesten zuen araudia egon.